

udalainformatzen



**Autokontsumorako
energia sortzeko eguzki
plakak jarri ditu Udalak**



OIARTZUNGO
UDALA

■ telefono interesgarriak

Udal telefono zenbakiak

Informazioa 943 49 01 42
Alkatetza 943 49 18 62
Gizarte Ongizatea 943 49 05 52
Hirigintza eta Atez ateko bulegoa 943 49 03 77
Kultura 943 49 10 34
Manuel Lekuona Biblioteka 943 49 38 64
Udaltzaingoa 943 49 33 11
Elorsoro Udal Kiroldgia 943 49 25 52
Udal Igerileku irekia 943 49 37 45
Arrixulo Udal Mendi-Aterpea 943 58 00 10

Turismoa

Turismo bulegoa 943 49 45 21
Herri Musikaren Txokoa 943 49 35 78
Luberri Ikasgune Geologikoa 943 26 25 93

Komunikabideak

Oiartzun irratia 943 49 37 11
Oarsoaldeko Hitza 943 34 03 30

Zerbitzuak

Osasun zentroa 943 00 65 04
DYA 943 46 46 22
Jubilatuena elkarte 943 49 00 02
Zaharren egoitza 943 26 10 80
Taxiak 943 49 14 74
Herribus - Iparbus 943 49 18 01
Posta 943 49 35 74
Epaitegia 943 49 09 13
Nekazal bulegoak 943 49 03 47 / 943 49 06 69
Oarsoaldea eskualdearen garapenerako agentzia 943 49 41 29
Behemendi 943 49 02 19

Hezkuntza

Haurtzaro ikastola 943 49 22 12
Elizalde Herri Eskola 943 49 01 93
Elizalde Institutua 943 49 10 17
Urmendi Haur Eskola 943 26 00 86
AEK Intxixu euskaltegia 943 49 39 57
Helduen Heziketa Iraunkorra (Altzibar) 943 49 00 48

Harremanetarako, ekimenen berri emateko, proposamenak egiteko...
hau da Oiartzungo udal aldizkariaren helbide elektronikoa: komunikazio@oiartzun.eus

■ ohar garrantzitsua

Udal aldizkaria euskara hutsean kaleratuko da.

Oiartzungo Udalak urte asko daramatza euskara normalizatzearen aldeko lana eginez. Aldizkari hau, horregatik, euskara hutsean kaleratzen da.

Nolanahi ere, nahi duenak ale bakoitzaren eduki nagusien laburpena jasoko du gaztelaniaz. Horretarako, ordea, eskaera egin beharko du udaletxeko informazio gunean, 943 49 01 42 telefono zenbakira deituz edo komunikazio@oiartzun.eus helbide elektronikora mezu bat bidaliz. Eskaera egitean, nork bere datuak eman beharko ditu, aldizkaria jaso ahal izateko.

NOTA IMPORTANTE

La revista se publicará íntegramente en euskera.

El ayuntamiento de Oiartzun lleva muchos años comprometido con la normalización del euskera. Esta misma revista, por eso, se publica únicamente en euskera.

No obstante, las personas interesadas tienen la posibilidad de recibir un resumen de los contenidos más importantes de cada número. Para ello, deben ponerse en contacto con el ayuntamiento, acercándose a la oficina de información, llamando al número de teléfono 943490142 o enviando un correo electrónico a la dirección komunikazio@oiartzun.eus. Al realizar la solicitud, la persona interesada deberá facilitar sus datos, para poder recibir la revista.



■ agurra



Agustin Lekuona Irastorza

Hirigintza eta trantsizio energetikorako zinegotzia

Azken aldian energia jasangarriaz asko entzuten ari gara eta datozen urteetan gure bizitzan garrantzi handia hartuko du, denoi eraginez. Energia hitza gauza guztiakin erlazionatu dezakegu eta honen erabilera egokia guztioi dagokigu. Pausoak eman behar ditugu eraldaketa energetiko honetan gure ingurumena babestu ahal izateko.

Oiartzungo Udalak urte asko daramatza zentzu honetan lanean. 2013 urtea oso garrantzitsua izan zen, mugarrira. Orduan definitu zen orain jarraitzen ari geran estrategia, lana egiteko bide bat zehaztu zen; digitalizazioarena.

Digitalizazio sistema honek gaur egun aukera ematen digu hainbat instalakuntza eta eraikin kudeatzeko: argiteria publikoaren %50, 13 udal eraikin, 5 kirol eraikin, 3 udal aparkaleku, ur zerbitzu eta horniduren instalazioak, hainbat lekuetako bideo zaintza sistema eta komun publikoetako larrialdi alarma. Honek esan nahi du une guztian daukagula sistema horien informazioa (energia kontsumoa, egoera, alarmak eta intzidentziak) eta informazio horren arabera programatu ditzakegu sistema horien errendimendu egokiak. Horrela energia kontsumoa asko jaitsi dugu eta gehiago gutxitzeko zertan eragin dezakegun antzeman dezakegu.

Kontsumoa jaisteaz gain, erabiltzen duguna guk sortzea garrantzitsua da eta nola ez, modu berriztagarrian. Orain arte proiektu txiki batzuk egin izan ditugu: Elizalde eskolan plaka fotovoltaikoak jarri, kiroldegian eguzki plaka termikoen bidez ura berotzeko sistema... Orain aurrerapauso garrantzitsua eman dugu bide honetan eta duela gutxi amaitu dugu Arrietako ur deposituan auto hornikuntza partekaturako 85,1 kWp-ko instalakuntza fotovoltaikoa. Bertan sortuko den energia inguruko udal eraikinetan erabiliko da.

2030 urterako bi helburu nagusi ditugu: energia kontsumoa %35 murriztea eta kontsumitzen dugunaren %32 energia

berriztagarriekin sortzea. Azken urte hauetan egindako lanari esker bidearen zati garrantzitsu bat egina dugu. Hala ere etengabeko lana izango da eta datozen urteetan Udaletik geroz eta baliabide gehiago bideratuko ditugu erronka hau lortzeko, trantsizio energetikoa gure lan lerro nagusienetarikoa baita. Horretarako, besteak beste, zaharkituta dauzkagun eraikin eta sistemak berritzen joango gara eta energia berriztagarria sortzeko proiektu berriak ere egingo ditugu. Energia Plana idazten ari gara orain. 2023an onartu nahi dugu. Energia mahai bat sortzea ekarriko du honek, bertan proiektu ezberdinak lantzeko. Datorren urtean inbertsio berriak ere egingo ditugu.

Energia trantsizioa lortzeko bide honetan aipatu nahiko nuke sortzen ari den herritarren mugimendua eta eratzten dabilzan Energia Berriztagarrien Kooperatiba. Egiten ari diren lana eta duten konpromisoa azpimarragarria da. Laster eratuko dute kooperatiba eta dagoeneko aztertzen ari dira zein izango den lehen proiektua. Gainera, beraien lana lanketa teknikitik haratago joango da: pobrezia energetikoa, berdintasuna, komunitatea, kontsumo jasangarria, burujabetza, partekatzea... Gai hauek guztiak landuko dituzte. Udal bezala bidelagun izango gaituzte, behar duten laguntza eskaintzeko, eta kooperatiba sortutakoan Udala ere kide izango da.

Erronka honi guztiok elkarrekin heldu behar diogu, denon artean etorkizun berdeagoa eta jasangarriagoa lortzeko. Proiektu handietatik hasi eta ohitura aldaketa txikienera arte; denok egin behar dugu ahalegina.

Amaitzeko, erronka txiki batzuk urte berriari begira: erabili gehiago bizikleta edo garraio publikoa; etxetik gertu eta hurbileko produktuak erosi; zaindu etxeko energia kontsumoa. Ea horrela, denon artean, ingurumena eta ingurukoak zaintzea lortzen dugun!



udal albisteak

Autokontsumorako 85,1 kWp-ko instalakuntza fotovoltaikoa jarri du martxan Udalak.

Energia trantsizioan aurrerapausoak ematen jarraitzen du.

Trantsizio energetikoa da Oiartzungo Udalaren ildo estrategiko garrantzitsuenetakoa. Gaur egungo energia eredu erregai fosiletan oinarritzen da bereziki; petrolio, ikatza eta gas naturala. Iturri hauek mugatuak izateaz gain, kalte handiak eragiten dituzte ingurumenean.

Krisi energetiko eta klimatiko honi aurre egiteko, energia estrategia martxan jarri zuen Udalak. 2013an hasi zen energia eredu jasangarriago baten alde lanean. Bi helburu nagusi lortu nahi ditu: udal eraikin eta instalazioetan kontsumitzen den energia kopurua gutxitzea eta subiranotasun maila handitzea, erabiltzen den energiaren zati handi bat Udalak berak sortuz instalakuntza berriztagarriekin.

Kontsumoen jarraipena

Energia eraginkortasuna handitzeko lehen pausoa elektrizitate, gas eta gasolioaren kontsumoaren jarraipena egitea izaten da. 2013an hasi zen Udalan lan honetan. Bere eraikin eta kaleko argiteriaren energia kontsumoak monitorizatu eta neurtzeko software bat instalatu zuen, jarraipen osoa modu zentralizatuan egiteko.

Kontrol honi esker, matxura edo beste arazoren bat gertatzen denean momentuan bertan jasotzen da informazioa. Energia kontsumoan aurrezteko beharrezko informazioa ere eskaintzen du, non eragin jakiteko eta aldaketa ezberdinak martxan jartzeko.

Energia efizientzia handitzeko neurri ezberdinak

Urte hauetan zehar, kaleko argiztapenean, sodiozko farolak kendu eta LEDezkoak jarri ditu Udalak eta horretan jarraituko du aurrerantzean ere. Hauen kontsumoa txikiagoa izateaz gain, gaueko ordu txikietan intentsitatea jaisten dute, aurrezpena handituz. Gainera, instalatutako softwareari esker, farolak pizteko momentua atzeratu eta itzaltzeko agindua aurreratu daiteke, kalean dagoen argitasun mailaren baitan.

Udal eraikinetan ere egin dira aldaketak. Besteak bestek, detektagailuak jarri dira argia eta berogailua inor ez dagoenean bakarrik itzaltzeko. Barruko argitasuna leihotik sartzen den argiaren baitan ere erregulatzen da, energia kontsumoa murrizteko.



Argindar kontsumoa %13 jaitea lortu du Udalak

Ekintza hauei esker, azken 4 urteetan %13 jaitsi da Udalaren argindar kontsumoa:

2018an 2.043.998 kWh-koa izan zen. 2021ean aldiz, udal instalakuntza berri gehiago dauden arren (Arizmendienea etxea, Karrikako bidegorria, Iturriotz eta Altxibarko aparkaleku berriak, Lintziringo argiteria berria, Arraguako igogailua...), kontsumoa txikiagoa izan zen: 1.787.790 kWh.

187 eguzki plaka Arrietako ur deposituan

Energia eraginkortasuna lortzeko neurri hauez gain, bere eraikinetan kontsumitutako elektrizitatea berriztagarria izateko eguzki plaken instalakuntza egin du Udalak.

85,1 kWp-ko instalakuntza fotovoltaikoa eraiki du Arrietako ur deposituaren estalkiaren gainean. 406 metro koadroko eremuan 187 eguzki-panel jarri ditu. 86.000 euroko aurrekontua izan du proiektuak.

Energian ere subiranotasuna lortu nahi du Udalak

Autokontsumorako instalakuntza izango da. Bertan sortuko den energia 500 metrora dauden udal eraikin ezberdinetan erabiliko da: ur deposituan bertan, Udaletxean, Fermiñene



udal albisteak

etxean, Landetxeko eraikin berrian, aparkalekuetan, Elizalde eskolan...

Eguzki plaka hauek urtean 85.870 kWh sortuko dituztela aurreikusten da, eraikin horietan kontsumitzen den energiaren %8 inguru.

Autosufizientzia-maila handitzea lortuko du horrela Udalak. Bertan kontsumitzen den energia bertan sortzeko pauso garrantzitsua da, gaur egungo dependentsia gutxitu eta subiranotasuna handitzea ahalbidetuko baitu.

Aurrera begira instalakuntza eta inbertsio gehiago

Energia erabilera murriztu eta kontsumitutakoa berriztagarria izateko egitasmo gehiago gauzatuko ditu aurki Oiartzungo Udalak. 312.150€ bideratuko ditu 2023an proiektu hauetara.

Elorsoro kirodegian egingo du proiektu garrantzitsuena. Gaur egun bertako energia kontsumoa neurtzen den arren, jarraipena ez dago sektorizatu. Beraz, ezin da jakin zerk kontsumitzen duen energia gehien (argiteria orokorrak, igerilekuak, aldageletako ura berotzeko sistemak...) eta eraginkorragoak izateko neurriak hartzea zailtzen du horrek. Kirodegiko instalakuntza guztia sektorizatu eta monitorizatuko du Udalak.

Elorsoron bertan elektrizitatea sortzeko 100 kWp-ko

instalakuntza fotovoltaikoa ere egingo du teilatuan, eta ura berotzeko aurretik zegoen eguzki-instalazio termikoa ere aldatu egingo du.

Madalensoroko argiteria aldatu eta argiteria publikoa berritzen jarraituko da. Auto elektriko berri bat ere erosiko du Udalak. Hiru auto eta moto elektriko bat ditu gaur egun.

Energia trantsizioa, herritarrekin elkarlanean

Trantsizio energetikoa lehen mailako erronka da eta guztion artean elkarrekin lan eginda lortuko dugu energia subiranotasuna. Horregatik, herritarrek ere beraien energia ekoizteko komunitateak sortzeko laguntza ere ematen ari da Udala. Goienerren aholkularitza kontratatu du horretarako eta komunitate hau sortzeko lanean dabil, herritar bolondres talde batekin elkarlanean. Gaiaren inguruan interesa duten herritarren info@oiartzunenergia.eus helbidera idatzi dezakete.

Udala sortuko den komunitateko bide bat gehiago izango da eta bere esku dagoen laguntza guztia emateko prest dago herritarrek ere energia berriztagarria sortzeko aukera izan dezaten. Oiartzunen behar dugun energia bertan sortuta bakarrik lortuko baitugu energia arloan ere herri eta herritar burujabeak izatea.



■ udal albisteak

Inoiz izandako aurrekonturik handiena izango du Oiartzunek: 18.757.166 €.

Herritarrekin elkarlanean osatu da.

18.757.166,98 euroko aurrekontua izango du Oiartzungo Udalak 2023 urtean, 2022an baino %1,8 gehiago. Irailean hasi zuen gobernu taldeak kontuak prestatzeko prozesua. Udal sailletako proposamenekin lehen zirriborroa osatu zuten eta herriko zortzi auzoetan egindako bileretan jasotako ekarpen eta iritziekin aberastu dute.

Inoiz izan duen aurrekonturik handiena izango du Oiartzunek. Gainera Udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua da, ez baitu banketxeekin mailegurik eta 2023rako aurreikusita dauden proiektuak gauzatzeko ez baitu krediturik eskatzeko beharrik izango.



Ildo estrategikoak

Aurreko urteetan hasitako bidetik jarraituz, Oiartzun eta oiartzuarren bizi kalitatea hobetzen jarraitzeko proiektu estrategikoak jasotzen ditu:

- **Herritarren ongizatea bermatu eta pertsonak babestu:** Oiartzuar guztiak kontuan hartuz, denon bizi-kalitatea bermatzeko lan egitea da Udalaren konpromisoa. 2.550.000 euroko aurrekontua izango du Ongizate Sailak. Besteak beste, menpekotasunen bat duten herritarrei arreta emateko etxez etxeko zerbitzura 793.000 € bideratuko dira eta herriko jubilatuena egoitza berria martxan jarri eta bertako zerbitzuak eta ekintzak antolatzeko 29.000 €. Gainera, 2023an Ongizate Saila Ferminene etxera pasatzeko obra lanak egingo dira, horrela zerbitzu hobia eskaintzeko.
- **Herriko kultur eskaintza indartu:** Oiartzun herri sortzailea da. Urtean zehar hamarnaka ekitaldi antolatzen dira. 2023an Landetxe Kultur Aretoa errealitate bihurtuko da eta honek ere herriko kultur eskaintza zabaltzeko aukera emango digu, herriko kultur eragileekin elkarlanean. Horregatik, Kultura Sailaren aurrekontua %44 igoko da 2023an eta 1.127.792 eurokoa izango da.
- **Elikadura burujabetza lortzeko proiektuak bultzatu:** Gure elikagaiak bertan ekoizti eta kontsumitzeko proiektuak laguntzen jarraituko du Udalak, lehen sektorea bultzatu eta elikadura burujabetza lortzeko. Besteak beste, lehen sektoreko ustiapenak diruz laguntzeko 60.000 € aurreikusi dira eta nekarazi eta abeltzainek sortu nahi duten elkarteak laguntzeko 30.000 € gorde dira.
- **Energia trantsizioa eta mugikortasun jasangarria sustatu:** Aurreko albistean aipatu bezala, energia eredu jasangarriagoa lortzeko proiektu ezberdinak martxan jarriko dira. Gainera, Xorrola eta Taxibus zerbitzuak sustatzen jarraitzeko 287.000 eta 55.000 euroko partidak aurreikusi dira, hurrenez hurren.

udal albisteak

Feminismoa eta euskara, zehar lerroak


Udal jardunean zehar lerroak dira feminismoa eta euskara. Udal sail guztiek dute Oiartzun euskaldun eta feminista lortzeko konpromisoa. Udalaren I. Plan Feministak aurreikusitako helburuak lortu eta ekintzak martxan jartzeko, Feminismo sailaren aurrekontua % 7 igoko da eta 137.454 € bideratuko dira. Gainera, herrian euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko 516.202 euroko aurrekontua izango du Hizkuntz Normalizaziorako sailak.

Herriko eragile, elkarte eta norbanakoak diruz laguntzera 3.734.885 €

Oiartzungo Udalaren kudeaketaren funtsa parte-hartzea da, elkarlana da ardatza. Oiartzungo eragileak, elkarteak eta hauen dinamikak dira herri bizi eta izaeraren adierazle nagusia. Hauen konpromiso eta ekimenari esker burutzen dira herrian hamarnaka proiektu eta ekimen. Bidelagun hauek gabe ez genuke gaur egun dugun herri kohesio eta ongizate maila izango.

Horregatik, sare hau zaindu eta elkarlanean proiektuak burutzeko, aurrekontu osoaren % 20 herriko eragile, elkarte, erakunde eta norbanakoak diruz laguntzera bideratuko da; 3.734.885 €, aurreko urtean baino 308.286 € gehiago.

2023ko gastuen aurreikuspena



Auzo batzar arrakastatsuek

Aurrekontu proposamena azaldu, ekarpenak jaso eta auzoen egoeraren berri hitz egiteko, auzo bilerak egin zituen urriari Udalak. Azken urteetako jendetsuenak izan ziren: 137 bizilagunek hartu zuten parte, iaz baino %26 gehiagok. Emakume eta gizonen parte hartzea parekidea izan zen (erdia eta erdia). Adin tarteari dagokionez, auzotar gehienak 31 eta 65 urte bitartekoak izan ziren (%77).



Udalak martxan dituen proiektu estrategikoak interes handia sortu zuten bizilagunen artean. Auzotarren ekarpen asko jaso ziren bileretan eta bizilagunen artean adostasunak ere lortu ziren. Udal taldetik honen garrantzia azpimarratu zuten elkar entzun, iritzi ezberdinak trukatu eta adostasunak bilatzeak auzo eta herri komunitatea sortzeko balio baitu.

Auzo guztietako aktak Oiartzungo Udalaren web gunean daude herritarren eskura, www.oiartzun.eus helbidean, (Udala saileko Auzoak atalean).

Jon del Olmo, ogasun zinegotzia:

“Energia trantsizioa gauzatzeko, zaintza sare publiko-komunitarioa sortzeko eta administrazioaren digitalizaziorako proiektuak gauzatu ditugu. Zati handi batean, 2023ko aurrekontua aurreko urteetan egin ditugun inbertsioetan ekintzak martxan jartzeko izango da, Landetxeko eraikin berriko kultur eskaintza sustatzeko eta jubilatuen egoitza berriko zerbitzua emateko, besteak beste. Kulturak hartuko duen protagonismoarekin batera, ongizatea, feminismoa eta euskara indartzen jarraituko dugu.”

■ udal albisteak

Oiartzungo hiru industrialde berritzen ari da Udala.

Herriko ekonomiarentzat estrategikoak dira eremu hauek.

Oiartzungo industrialdeetan 7.000 pertsonak egiten dute lan. Eremu hauek garrantzia berezia dute herriko eta eskualdeko ekonomian: enplegu asko sortzeaz gain, Udalak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu publikoak finantzatzeko diru-iturri ere badira.

Oiartzungo Udalarentzat estrategikoa da eremu hauek berritu eta azpiegitura egokiak eskaintzeko lanak egitea, bertan dauden enpleguak eta enpresak mantendu eta proiektu berriak erakartzeko.



Azpiegiturak, irisgarritasuna eta errepideak

Gune hauek duten potentziala berriro balioan jarriko duten eraberritze lanak egiten ari dira: lurra altxa, hoditeria eta argiteria berria jarri, espaloiak egin, errepideak berritu, aparkalekuak txukundu...

Bertako enpresek behar dituzten azpiegitura guztiak bermatu nahi ditu Udalak.

Lintzirin izen zen lehenengoa

Aurreko legealdian Lintzirin industrialdea berritzeko proiektua gauzatu zen: sarrera-irteerak, errepideak eta azpiegiturak berritzeaz gain, espaloiak egin ziren. Gainera, bertako eraikin zaharretan balio erantsiko jarduera iraunkorrak martxan jarri eta kalitatezko enplegua sortu duten enpresa berriak erakartzea lortu zuen Udalak.

Legealdi honetan 2.200.000 euroko inbertsioa

2021-2023 epean herriko lau industrialde gehiago modernizatzeko proiektua martxan du Udalak. Guztira 2.200.000 euroko aurrekontua izango dute lan hauek.

2021 urtean Lanbarren industrialdea egokitu zuen eta orain Ugaldetxo, Oiartzun eta Makarraztegi poligonoak berritzen ari da.

Hilabete hauetan bukatuko dira Oiartzun eta Makarraztegi eremuetan egiten ari diren lanak. Ugaldetxo industrialdea berritzea izango da obra garrantzitsuena eta bi fasetan egingo da: lehenengo zatia datozen asteetan bukatuko dute eta bigarrena 2023 urtean zehar osatuko da.

Lau poligono garrantzitsu hauek eraberritzeaz gain, herrian dauden beste industrialde txikiagoak txukun mantentzeko asfaltatze lanak ere egin dira legealdi honetan, Talaia eta Altzibarren esaterako.

Eskualdeko ekonomian erreferente izaten jarraituko du Oiartzunek

Azken 8 urte hauetan martxan jarritako proiektu hauei esker, Oarsoaldeko arnagune ekonomikoa diren gune garrantzitsu hauen modernizazio integrala gauzatu du Udalak.



■ udal albisteak

Oiartzungo kiroldegiko bazkideek beste 72 herritako kiroldegiak doan erabiltzeko aukera izango dute.

Kirol Txartela Mugiment programan sartuko da Oiartzungo Udala.

Urtarrila amaieran Kirol Txartela Mugiment programan sartuko da Udala. Honi esker, Oiartzungo kiroldegiko bazkideek Euskal Autonomia Erkidegoko beste 72 herritako 132 kirol instalakuntza doan erabiltzeko aukera izango dute.

Ariketa fisikoa sustatzea, kirol-espazioetarako sarbidea erraztea eta kirol-eskaintza handitzea da proiektu honen helburua. Baliabideak eta instalazioak aprobetxatu eta partekatuko nahi dira, ahalik eta pertsona gehienen eskura jartzeko eta bazkideei eskainitako zerbitzua zabaldu eta hobetzeko.

72 herritako kiroldegietara sarrera doan

Lezo, Bilbo, Beasain, Orio, Gasteiz, Azpeitia, Arrasate... Gaur egun 72 udalerrri daude sartuta Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen proiektu honetan, tartean Gipuzkoako 20. Urtarrila amaieran gehituko da Oiartzun. Urte hasieran Donostia eta herri gehiago ere sartuko dira kiroldegi sare honetan.

Horrela, Oiartzungo bazkide batek Donostian lan egiten badu eta bazkal ondoren tarteren bat badu, edo beste bat astean zehar Bilbon ikasten ari bada, bertako kiroldegiak doan erabiltzeko aukera izango dute.

Zerbitzu eta ordutegiak kontsultatzeko aplikazioa

Beste kiroldegiak erabili ahal izateko, mugikorrean KirolTxartela

Mugiment aplikazioa deskargatu eta erabiltzailearen datuak sartu beharko dira. Aplikazioan bertan ikusi daitezke beste herrietako zein kirol instalazio eta zerbitzu erabili daitezkeen eta zein ordutegitan. Informazio hau kiroltxartela.eus helbidean ere kontsultatu daiteke.

Beste udalerriko kiroldegira joatean, sarreran aplikazioko txartel birtuala eta nortasun agiria besterik ez dira erakutsi beharko.

Trukean, beste herrietako bazkideek Elorsoro erabiliko dute baina honek ez du eraginik izango bertako zerbitzuan, jende gutxi ibiltzen den orduetan bakarrik izango baitute aukera (goizean goiz eta eguerdian).

Elorsoron makina berriak jarriko ditu Udalak

Hau ez da izango 2023an Elorsoroko bazkideek izango duten hobekuntza bakarra. Datozen hilabeteetan giharketa gelako makina guztiak aldatuko ditu Udalak. Zaharrak kendu eta berriak erosteko kontratazio prozedura martxan du dagoeneko. Bertako lurra eta zenbait bizikleta ere aldatuko ditu. 150.000 € bideratuko ditu berrikuntza hauetara.

Programaren informazio gehiago hemen:



■ udal albisteak

Bibliotekako haurren liburuen genero ikuspegiaren azterketa egin da.

Haur-literaturan aurreiritzi sexistarik dagoen jakin nahi izan dute.

Gure jendartearen sozializazio prozesua sexuaren arabera da, jaiotzen garen unetik ez direlako berdinak neskek eta mutilak jasotzen dituzten mezuak. Genero sozializazio hau gure egunerokoan oso presente dago, umeen jantzietatik hasi eta kontatzen zaizkien ipuinetaraino.

Etorkizuneko belaunaldiak euren bidea libreki eta modu askean aukeratzea eta ibiltzea nahi badugu, ume eta gazteei zuzendutako ipuin eta liburuetan, eredu posible guztien dibertsitatea jaso eta sozialki bidekoak direla erakutsi behar da.

Gaur egun haur-literaturan aurreiritzi sexistak al daude?

Bibliotekako haurren liburuetan sexu genero rolen inguruan ematen diren mezuak ikuspegi feministatik aztertu ditu Oiarzungo Udalak. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, ezinbestekoa baita genero estereotipoak desagertzea. Sexu eta genero rol tradizionalak nagusi al dira? Eredu berritzaileak ba al daude? Zein pisu du bakoitzak? Gure gizartearen aniztasuna ikusten al da? Galdera hauek erantzun nahi izan ditu.

Egoera zein den ezagutu, hobetzeko neurriak hartzeko

Udalak egoera zein zen jakin nahi izan du, eguneroko lanean neurri zuzentzaileak hartzeko premia baldin badago nondik nora lan egin jakiteko. Liburuzainek liburu berriak erosterakoan irizpideak izan ditzaten, hutsuneak non dauden jakiteko eta liburu zaharkituak bazterterakoan ere genero ikuspegia kontuan izan dezaten, datuetan oinarrituta.

588 liburu aztertu dira

Haur eta gazteei zuzenduta dauden 5.620 liburuko katalogotik zoriz 588 aukeratu dira azterketa egiteko. Lagina esanguratsua izan da beraz, ondorioak ere errealitatearen argazki zuzena islatzeko.

Urte hasieran abiatu zuten azterketa eta 9 hilabetez, liburuen edukia banan bana aztertu dute: idazle eta ilustratzaileen sexua, pertsonaia protagonistaren generoa eta ezaugarriak,

estereotipoak apurtzen dituzten, lan produktiboa eta zaintza nork egiten dituen, maitasun erromantikoa ageri den, nolako familia ereduak azaltzen diren...

Rol tradizionalak dira nagusi

Emakume idazle eta ilustratzaileak gutxiengo dira. Emakumeen errepresentazio sexualizatua nabarmena da. Koloreen erabilera estereotipatua ere egiten da.

Pertsonaia maskulinoen kopurua (%54) femeninoena (%22) baino handiagoa da. Gainera, gehienetan pertsonaiak oso estereotipatuak agertzen dira: gizonak liderrak, ausartak eta jakintsuak dira eta espazio publikoan nagusitasuna dute; emakumeak edertasunak edo zaintzaz arduratzen dira, etxe giroan.



udal albisteak

Badugu lanean nondik hasi

Liburuzainen azken urteetako ardura eta lanari esker, ekarri diren liburu asko oso eraldatzaileak dira eta bilakaera positiboa nabari da. Hala ere, bibliotekako liburu asko duela urte dezente idatzitakoak direnez, eredu berri gutxi agertzen dira. Lan asko dago egiteko oraindik eta azterketa honi esker, zer eta nola hobetu identifikatu da.

Azterketa honen ondorioekin kartela eta eskuorria prestatu ditu Udalak, irakurleek ere liburuak aukeratzeko garaian emaitza hauek kontuan izan ditzaten. Herriko ikastetxei ere zabaldu zaie materiala, haurrekin lantzen dituzten liburuak aukeraketan laguntzeko.

Feminismoa udal jardunean zehar lerroa

Uztailean onartu zuen Udalak Oartzungo I. Plan Feminista. Berdintasun politika Udaleko jardun guztietan zehar lerro bezala integratzea du helburua, pixkanaka proiektu guztietan lan egiteko modua eraldatu eta ikuspegi feminista txertatzea: hirigintzan, kulturean, ongizatean, udaltzaingoan, kirolean... Aurten bibliotekan egindako lan hau horren adibide da.


Ikusi eta deskargatu hemen ikerketaren ondorio nagusiekin egindako esku-orria



Emakumea espazio pribatuan eta publikoan dago?

Aztertutako liburuen %68an emakumeak espazio pribatuan agertu dira, eta liburuen %43an espazio publikoan.

Adin tartetan gora, emakumea esparru pribatuan gehiago eta estereotipuago erakusten da.



Zein famili eredu azaltzen dira?

Familia agertzen den liburuetan guztietatik eredu nagusia familia tradizionala (%68) da.

Eredu anitza (%10) oso gutxi erakusten da eta batez ere helduagoen liburuetan.



Aniztasuna islatzen da?

Aniztasunaren presentzia txikia da.

Aniztasuna gai nagusi moduan lantzen duten liburuak aurki daitezke, baina ez zehar lerro gisa kokatzen den testuinguru moduan.



Maitasun erromantikoa ageri da?

Maitasuna eta sentimenduak nesken kontua direla ondoriozta dezake ikerketak. Maitasun erromantikoa liburuen %9ean soilik ageri da, baina adin tartean gora, gehiago azaltzen da.



Topatu ditugun estereotipoetako batzuk:

<p>Neskek maitasunari garrantzia handia ematen diote, txukunak eta lasaia dira.</p>	<p>Mutilak salbatzaileak, indarkeri-zaleak, alprojak eta desordenatuak dira.</p>	<p>Nesken itxura oso garrantzitsua da. Ez dago aniztasunik, normalean argalak dira.</p>
<p>Emakumea etxeko eta zaintza lanekin lotuta dago. Amantala janztea ohikoa da.</p>	<p>Aitak ardurarik gabe, zaletasunekin eta dibertigarriagoak dira amak baino.</p>	<p>Emakumeen irudikapena oso sexualizaturik eta apaingarri gisa agertzen da.</p>
<p>Amonak zaintzan agertzen dira eta maitekiro.</p>	<p>Aitonak jakintsu gisa agertzen dira.</p>	<p>Emakumeen arteko gatatzak maiz agertzen dira.</p>
<p>Azalek kolore oso desberdinak dituzte protagonisten sexuaren arabera.</p>	<p>Emakumea sorgin moduan ageri ohi da. Itsusia eta gaiztoa irudikatzen da.</p>	<p>Aztiak sorginek baino estatus hobea dute eta atseginak eta jakintsuak dira.</p>



Liburuzainen azken urteetako ardura eta lanari esker, katalogoko eskurapen berrien artean liburu oso eraldatzaileak topatu dira.



■ udal albisteak

Oiartzunen bakardadeak duen eraginaren diagnostikoaren emaitzak aurkeztuko dituzte.

Eskuhartzeekin eta sare komunitarioa sortzen hasiko dira.

Gure gizartea aldatzen ari da etengabe. Gizarte-erlaketek, individualismotarako joerak, bizi itxaropena handitzeak egituraketan izandako aldaketek... zaintzen krisi sakona eragin dute.

Hautazkoa ez den bakardade egoeran dauden Oiartzungo helduen bizi kalitatea hobetzeko Zaintzadi proiektu publiko-komunitarioa abian jarri zuen udaberrian Udalak. Baliabide gutxi dituzten eta inguruko pertsonen laguntza jasotzen ez duten 55 urtetik gorako pertsonen beharrak ezagutu eta hauei erantzuteko esku hartze sozio hezitzailea eta komunitarioa martxan jarri nahi du, Oiartzungo eragile eta herritarrak ere prozesuan inplikaturik.

45 elkarrizketa eta 185 inkesta

Proiektuaren lehen fasean, bakardade egoera ez hautatuan bizi diren pertsonen beharrei erantzuteko Oiartzunen ditugun baliabideak, sare komunitarioak, herri dinamikak eta mugak zein diren aztertu dira.

Zeharka bada ere, gai honen inguruan lan egiten duten Oiartzungo 27 eragileetako 45 pertsonekin elkartu dira proiektuko hezitzaileak (29 emakume eta 16 gizon). Gainera, 185 herritarrek erantzun dute gaiaren inguruan zabalduko inkesta.

Informazio horrekin guztiarekin, bakardadeak duen eraginaren diagnostikoa egin eta herrian honi aurre egiteko ditugun aktibo eta baliabideak identifikatu dituzte.

Detektatu bai, baina ez dakigu nola erantzun

Diagnostikoan parte hartu duten ia denek (%93ak) esan dute ezagutzen dutela bakardade egoera ez hautatuan egon daitezkeen pertsonaren bat inguruan. Hala ere, %79ak detekzioa modu azkarrean egiteko gaitasunik ez duela aitortu du, eta detektatuta ere, ez lukeela argi izango zer egin edo nora jo laguntza eske. Izan ere, Oiartzunen egiten diren jarduerak prebentiborik ezagutzen duten galdetu denean, %71ak ezetz esan du.

Arazo hau detektatzeko zein honi aurre egiteko jakintza kolektibo nahikorik ez dagoela agerian geratu da.

Kontzientziazioa landu, komunitatea aktibatuz

Diagnostikoak azaleratu duenez, herritarroei urrun geratzen zaigu bakardade ez hautatuaren kontzeptua: ez dugu ongi ulertzen zer den eta beraz, gaiaren inguruko sentsibilitatea izanik ere, egoera horretan egon daitezkeen pertsonak detektatzeko gaitasun handirik ere ez dugu.

Horregatik, sentsibilizazio, kontzientziazio eta formakuntza beharrezkoak izango dira gure inguruan bakardade egoera ez hautatuan bizi diren pertsonak identifikatu eta nola lagundu jakiteko.

Hurrengo pausoak: eskuhartze indibiduala eta saretzea

Udalak dagoeneko detektatuta ditu bakardade egoera hauskorrean egon daitezkeen pertsonak eta hauekin harremanetan jartzen hasiko da orain, beraien beharrak zein diren ikusi eta proiektuan parte hartu nahi duten galdetzeko.

Dena den, egoera hau bizitzen egon daitezkeen pertsona gehiagoren berri izateko eta hauei eskaini beharreko laguntza artikulatzeko, beharrezkoa izango da Oiartzungo eragile eta herritarren parte-hartzea eta elkarlana.

Horregatik, bakardade ez hautatuaren inguruko sentsibilizazio eta formakuntza landu eta zaintza sare publiko-komunitarioa sortzen joateko saio irekiak antolatuko ditu Udalak datozen hilabeteetan.



■ udal albisteak

14 etxebizitza huts alokairura bideratzea lortu du Udalak.

Oiartzungo Etxebizitza Bulegoak 221 maizter eta 55 etxejabetari eman dio zerbitzua.

Herrian hutsik dauden etxebizitzak alokairura bideratzeko neurri ezberdinak hartu ditu azken urte hauetan Oiartzungo Udalak. Etxe hauengatik jabeek ordaindu behar dituzten tasa eta zergak igotzeaz gain, hauek alokairu duinera bideratzeko aholkularitza zerbitzua martxan jarri zuen eta hainbat dirulaguntza ematen ditu.

Etxebizitza Bulegoa

2016 urtean jarri zuen martxan Udalak Etxebizitza Bulegoa herriko etxebizitza hutsak alokairu duinera bideratzeko. Etxe hutsen jabe direnek eta etxe bat alokairu nahi dutenek, biek jasotzen dute aholkularitza Etxebizitza Bulegoan: programan parte hartzeko baldintzak eta abantailak azaltzen zaizkie.

14 etxebizitza huts alokairu sozialera bideratu dira

Bulegoa ireki zenetik, 14 etxebizitza huts alokairu sozialera bideratzea lortu da. Gainera, etxebizitza alokatzea bilatzen ari diren 221 maizterri eta 55 etxejabetari eskaini zaio aholkularitza. Zerbitzua abian jarri zenetik gora egin du eskaerak, maizterren kasuan bereziki.



Etxebizitza alokairuan jartzeagatik abantaila ugari

Hilabeteko kuota ez jasotzea, etxea modu onean ez zaintzea, errenta hartzen dituzten pertonekin sor daitezkeen gatazkak... Beldur hauengatik jabe askok ez dute etxe hutsa alokairuan jartzen. Beste batzuentzat egin beharreko tramitazio guztia izaten da oztopoa.

Etxebizitza Oiartzungo Etxebizitza Bulegoaren bidez alokatuta, abantaila hauek lortzen dituzte jabeek:

1. Arrisku anitzeko etxe aseguruia doan. Gainera, kontratua amaitzean, alokairua egiten den unean zuen kontserbazio-egoera berean itzultzen zaio etxebizitza jabetari (erabilpenagatik eragindako ohiko higadura salbu).
2. Alokabideren aseguru hirukoitza ASAP edo Bizigune programetarako: juridikoa, kaudimena (maizterrek alokairua ordaintzen ez badu) eta balizko kalteen aurrean.
3. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren %50eko deskontua.
4. 60 €-ko errenta osagarria 12 hilabetez, Udaletik jasotzen dutena.
5. Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko dirulaguntza.
6. Doako alokairuaren kudeaketa osoa: ez dute fidantza-izapiderik edo alokairuarekin lotutako beste ekintzarik egin behar, Etxebizitza Bulegoak egiten baitu.
7. Etxebizitza berritzeko 3.000 € arteko dirulaguntza.
8. Obra-lizentzietan %95eko hobaria.

Konpromisoak

Etxejabeek programan bost urtez egoteko konpromisoa hartzen dute. Alokairu prezioa Eusko Jaurlaritzako tasatzaile batek zehazten du, etxebizitza bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera.

Informazio gehiago

Programak eskaintzen dituen abantailen informazio gehiago eskuratzeko, aukeren berri emateko, kudeaketa lana egiteko eta laguntza eta dirulaguntzak bideratzeko, 943 49 41 29 telefonora deitu edo etxebizitza@oiartzun.eus helbidera idatzi daiteke. Etxebiderek lotutako tramiteak ere bertatik bideratu ditzakete herritarrek.

■ udal albisteak

Lehen sektorea laguntzeko 58.000 €

58.000 euro bideratu ditu Udalak lehen sektoreko proiektuak sustatzeko. Herrian kokatutako ustategiek eskatu ahal izan dute laguntza.

2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 1a bitarte egindako gastuak laguntzeko izan da dirulaguntza: inbertsio eta ustategien hobekuntzak; nekazaritza makineria eta ekipoen erosketa; baratzezaintza eta lorezaintza intentsiborako instalakuntzak; berrikuntza teknologikora edo belaunaldien erreleboratutako aholkularitza azterketa lanak; ekoizpen ekologikoa bultzatzeko egitasmoak; nekazaritza erabilerarako ur gastuak; abereen bazka eta pentsuen ordainketa... izan dira lagundu diren kontzeptuak. Jexux Leonet Oiartzungo alkateak dirulaguntza lerro honen garrantzia azpimarratu du, "lehen sektoreak bizi duen egoera ekonomiko gogorra arintzen laguntzeko". Adierazi duenez, "jaten duguna ez dugu guk sortzen. Honek dependentsia eta kanpoko eragile eta erabakien menpe egotea eragiten digu. Herritar askeak izan nahi badugu, garrantzitsua da jaten duguna ere bertan ekoiztea". Horregatik, Udaletik ere lehen sektoreko proiektuak laguntzen eta hauspotzen jarraitzeko konpromisoa berretsi du.



2023an Mugi txartelean %50eko hobaria aplikatzen jarraituko da Udalaren bozkari esker

Abenduaren 20an Gipuzkoako Garraio Agintaritzako bileran urte berriari begira hartu beharreko neurriak ebatzi ziren. Oiartzungo Udalak, Garraio Agintaritzan duen bozkarekin, garraio publikoan hobaria mantentzea ahalbidetu du, herritarren mesederako diren hobaria aplikatzen jarraitzeko. Honi esker, herri barruko garraio publikoan ez ezik, 2023 urte osoan zehar Mugi txartelarekin egindako bidaietan %50eko beherapena mantenduko da.

udal albisteak

Urmendi eta Haurtzaro Ikastolaren artean espaloia egin da

Urmendi Haur Eskolatik Haurtzaro Ikastolara doan errepide zatian espaloia egin du Udalak. Hilerritik Urmendirako tartean espaloia bazegoen arren, Urmenditik ikastola ingurura errepide bazterretik joan behar izaten zuten oinezkoek.

Espaloia egiteaz gain, bide guztia argiztatu da. Proiektu hau bukatuta, Sibeluts kale guztian oinezkoentzako bidea dago orain.

Oiartzungo Udalak herri barruan ibilgailuen erabilera gutxitu eta mugikortasun osasuntsua indartzen jarraitu nahi du horrela, Urmendira ere oinez modu seguruan joatea erraztuz.

89.212,76 euroko aurrekontua izan dute lanek.



Herriko ondarea ezagutzeko jardunaldiak egin dituzte

Oiartzungo historia eta ondarea ezagutzera emateko saioan antolatu zituzten azaroan Udalak eta Ondarearen Mahaia. Laugarren edizioa izan da. Aurtengo berrietasun nagusietako bat irakasleentzat antolatutako tailerra izango da. Irakasleei herriko ondarea erakutsi nahi izan diete (non dagoen jasota eta zein baliabide dituzten honen lanketa egiteko), horrela haur eta gaztetxoei transmititzeko aukera izan dezaten. Doneztebe elizan eta inguruan dauden elementu zibilak eta Antton Mendizabal artistak Oiartzungo kaskoan dituen eskulturak gertutik ezagutzeko aukera ere egon zen.

■ udal albisteak

Ia 200 pertsonok erabili zuten gaueko Xorrola berezia Xanistebanetan

Gaueko Xorrola zerbitzu berezia izan zen aurtengo Xanistebanetako berrikuntza nagusia. Festetako bost gauetan, 00:00etatik 6:00etara, herriko zortzi auzoak lotu zituen autobusak orduro. Udalak herriko festetan mugikortasunean segurtasuna handitu nahi izan zuen horrela, alkohola kontsumitu ondoren jendeak autoa ez hartzeko eta etxerako bidean emakumeen segurtasuna hobetzeko.

Guztira 193 pertsonok erabili zuten zerbitzua. Batez beste gauero 40 pertsona itzuli ziren etxera Xorrolan.

Jexux Leonet alkateak "oso positiboki" baloratu zuen zerbitzuaren erabilera. "Lehen aldia izanda bagenuen zalantza ea lortuko genuen jendearen ohiturak aldatzen hastea eta etxerako bidean autoa hartu beharrean Xorrolan joatea. Oiartzuar askok erabili du zerbitzua eta pozik gaude, lortu dugulako etxerako itzulera modu seguruagoan egitea". Herritarrek ere zerbitzua "asko eskertu" dutela adierazi zuen alkateak.

Hurrengo urteko Xanistebanetan ere Udalak gaueko Xorrola berezia mantentzeko ahalegina egingo du.



Ibai ertzeko barandetan sare metalikoak jarri dira

Altzibar auzoko ibai ertzeko barandetan sare metalikoak jarri ditu Udalak. Guztira 474 metro jarri dira. Sare hauekin ibaira erortzen den zabor kopurua murriztu nahi du Udalak, ondoren itsasora iristen den zabor kopurua gutxitu eta horrela itsasoaren egoera hobetzeko. Izan ere, itsasora heltzen diren hondakinen %80 ibai-erreak eta lurreko natur guneetatik iristen dira.

■ udal albisteak

Karla Lekuona futbol zelaiko instalakuntzak berritzen ari da Udala

21 talde ditu OKEk, 8 emakumeenak eta 13 gizonenak. Denboraldi honetan 400 jokalaritik gora ariko dira Karla Lekuona zelaian futboleant, gehienak oiartzuarrak.

Futbol zelaiko aldagela zein eraikin osagarriak zaharkituta daudenez, hauek berritzeko proiektua martxan jarri du Udalak, futbol taldearen beharrei erantzuteko.

Eraikin nagusia guztiz berritzen ari dira eta bertan 6 aldagela egingo dira, horietako 1 egokitu. Aldagela bakoitzak komun bat eta 9 dutxa izango ditu, 7 egokituak.

Taldean aldagelak handituko direnez, orain arte eraikin nagusian zeuden beste ekipamendu gelak kokatzeko (bulegoa, arropa biltegia edota botikin eta masaia gela, besteak beste) eraikin berri bat egin da. Epailen aldagelak ere bertan egongo dira. Eraikin berriak zuzenean zelaira ateratzeko korridorea izango du eta harmailak zeuden lekuan egin denez, harmailak tokiz mugitu dira.

Zelaia inguratzen duen hesia ere aldatu egingo da, jokalarien segurtasuna hobetzeko.

Guztira 382.854,84 euroko aurrekontua izango du proiektuak eta lanak urtarilean amaitzea aurreikusten da.



Eskola Agenda 30en baitan, aurreko ikasturtean egindako eskaerak erantzun ditu Udalak

Herriko ikasleek proposamen ezberdinak egin zizkieten Udaleko ordezkari eta teknikariari larre eta landareak zaindu eta ezagutzera emateko. Besteak beste, herriko landare eta zuhaitzen izenak ezagutzeko ekintzak antolatzea eskatu zioten Udalari. Horretarako, zuhaitz eguna antolatzeaz gain, datozen asteetan bidegorrian 82 plaka jarriko dituztela zehaztu zien Agustin Lekuona zinegotziak. Hauetan, zuhaitz bakoitzaren izena, jatorria eta hostoaren marrazkia ikusi ahal izango dira. Arizmendieneako lorategian eta Ibergaingo parkean ere informazio kartelak jartzea baloratzen ari da Udala.



■ udal albisteak

Koldo Fernandez Etxarteren familiak jaso du Kirol Saria

Oiartzungo VII. Kirol Saria jaso du Koldo Fernandezen familiak. Otsailean hil zen Oiartzun Kirol Elkarteko lehendakaria. Herriko futbol taldea aurrera ateratzeko gogor lanean egon zen berrogei urtetik gora, eta egindako lana eskertu nahi izan dute Udalak eta herriko beste kirol elkarteek.

Enekoitz Markos Kirol zinegotziak adierazi zuen "ahobatez" erabaki zutela saria Fernandezentzat izatea, "egin duen lan guztiak aitortza eta eskertza merezi duelako". "Koldok Oiartzunen alde egindako lan guztia ezingo dugu ordaindu, baina gaur zor horren zatitxo bat kentzen" saiatu nahi izan dutela esan zuen.

Koldoren bi lorpen nabarmendu zituen: emakumezkoen futbolaren alde egindako apustua eta esfortzua eta aniztasun funtzionala duten pertsonen ere futbol egokitan aritzeko aukera izan dezaten egindako lana. "Koldok bazuen berezko ezaugarri bat: ez zuen inor atzean uzten. Eta hau OKEko eguneroko lanean ere txertatzeko gai izan zela" aipatu zuen Markosek.

Jexux Leonek Oiartzungo Alkateak eman zien Kirol Saria Fernandezen semeei. Leonetek "Koldo guztiontzat erreferente bat izan dela" esan zuen, "bai kluberako eta baita bizitzarako ere". Bere umiltasuna, konpromisoa, zintotasuna eta lanerako gogoia goraipatu zituen.



Hiru frontoi margotu dira

Azken hilabeteetan hiru frontoi berri ditu Udalak: Elizalde eskolako, Medibilgoa eta Orlegimendikoa. Paretak margotu, zenbakiak jarri eta lurrean markak pintatu dira. Elizalde eskolakoan sare berria ere jarri da. 17.720 €ko aurrekontua izan dute lanek.

udal albisteak



Berdintasunean formakuntza jaso dute udal langileek

Udal jardunean feminismoa zeharlerro moduan txertatzeko beharrezkoa da, besteak beste, bertako langileek etengabeko formakuntza jasotzea. Horretarako, Udaleko administrari eta teknikari guztiek trebakuntza saioak izan dituzte azaroan. Emakume eta gizonen berdintasunerako lege berriaren aldaketa nagusiak zein diren landu dituzte eta sail bakoitzari bereziki zerk eragiten dion jorratu da. Gainera, hizkera eta komunikazio ez sexistaren inguruko formazioa ere jaso dute administrazioek.

Hamarnaka herritar Feministen Asanbladak deitutako elkarretaratzean

Hamarnaka herritar bildu ziren emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunean Oiarzungo Feministen Asanbladak deitutako elkarretaratzean. Tartean izan ziren udal ordezkariak ere. Mundu osoan bezala, Euskal Herrian eta Oiarzunen ere indarkeria matxista jasaten jarraitzen dutela salatu zuten. 115 emakume eta 11 haur erail dituzte 2003az geroztik Hego Euskal Herrian. Oiarzunen urtariletik irailera 25 eraso salatu dira, joan den urtean data berean baino lau gehiago. Gogorazi zuten, txanponaren beste aldean, zoritxarrez, datu gordinagoak topatuko genituzke, gertatzen diren erasoen %20 bakarrik salatzen batira. Saretzen, autodefensa feministan sakontzen, boteretzen eta indartzen tinko jarraituko dutela berretsi zuten.



Herriko bizilagun berriei ongietorria egingo diete

Azken hilabeteetan Oiarzunerako bizitzera etorri direnei harrera egin zieten Udaleko Hizkuntza normalizaziorako eta Ongizate sailek, Abaraxka Udal Ludotekak eta hainbat herritarrek. Aurten egin den bigarren saioa izan da. Maiatzean egin zen lehena. Kolonbiatik, Donostiatik, Aljeriatik, Azpeititik... 63 bizilagun berri etorri dira orduan Oiarzunerako eta guztiei egin zitzaizkien saiora etortzeko gonbidapena. Otordu baten bueltan elkartuko ziren parte hartzaileak. Bertako eta urrutiko jakiak eta doinuak izan ziren protagonista.



udal albisteak



Oiartzungo zortzi auzoak garbitu dituzte auzolanean

Martxoan Elizalden hasi eta azaroan Arragan bukatu arte, hilabetez hilabete herriko zortzi auzoak txukundu dituzte auzolanean. Bazterrak Txukuntzen boluntario taldeak eta Oiartzungo Udalak antolatu dute ekimena. Auzoak garbitzeaz gain, kalean botatzen ditugun hondakinez eta uzten dugun zikinkeriaz kontzientziatzea izan da helburu nagusia, herritarrek arduraz joka dezaten.

Euskaraldiarekin bat egin du Oiartzungo Udalak ere

Herritarren hizkuntz ohiturak aldatzeko, Euskaraldiaren hirugarren edizioa egin da azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitarte. Hitzez ekiteko garaia dela aldarrikatu dute milaka euskaltzalek. Oiartzunen 1.600 pertsonak egin dute bat ekimenarekin, baita hamarnaka erakundek eta Oiartzungo Udalak ere.



Xabier Lete XXXV. Prosa eta Poesia Lehiaketako sariak banatu dituzte

Prosa eta Poesia lehiaketako sari-banaketa izan zen Euskararen Nazioarteko Egunean. Suo-Gân talde oiartzuarraren musika lagun, irabazleak beraien ipuin eta olerkien zatiak irakurtzera igo ziren oholtzara. Ekaitz Zabalza ilustratzaileak marrazki bihurtu zituen poesia eta kontakizun horiek. Urtez urte, haur eta gazte oiartzuar askok hartzen dute parte lehiaketan. Denak zoriondu nahi izan zituzten irudimenaren bitartez lurralde berriak ezagutu eta ezagutarazteagatik. Josu Delgado Hizkuntz normalizaziorako zinegotziak sortzen, idazten eta amesten jarraitzeko deia egin zien.



plenoak

2022/07/28. Oiarzungo Udala, Oarsoaldeko Garapen Agentzia eta SPRIren arteko hitzarmena herriko industrialdeak biziberritzeko.

Oarsoaldeko Garapen Agentziak aurkeztutako "2022 Industria Eremuak Modernizatzeko Plana" proiektua gauzatzeko SPRI, Oarsoaldeko Garapen Agentzia eta Lezo eta Oiarzungo Udalen arteko lankidetzak hitzarmena sinatzea onartu zen. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzak SPRIren bitartez 1.500.000 euroko ekarpena egingo dio 2021, 2022 eta 2023 urteetan zehar Oiarzungo Udalari industriaguneak berritzeko. Jexux Leonet alkateak positiboki baloratu zituen "2022 Industria Eremuak Modernizatzeko plana" gauzatzeko sinatutako hitzarmen hauek: "hauei esker, Eusko Jaurlaritzatik 1.500.000 euro jasoko ditugu hiru urtetan herriko poligonoak biziberritzeko. Oiarzungo poligonoak arnagune ekonomikoa dira eskualdearentzat eta horregatik behar-beharrezkoa da hauek erakargarriak izatea eta azpiegiturak egoki mantentzea". Oiarzungo Udaletik finantzaketa hau lortu ahal izateko egindako "lan handia" azpimarratu zuen. Herriko poligono guztiak berritzeko proiektuak martxan jarriko dira horrela. Proiektu hauen aurrekontuaren %70 Eusko Jaurlaritzak finantzatuko du SPRIren bitartez eta Oiarzungo Udalak %30a.

Xanistebanetako jai egitaraua eta aurrekontua onartu zituzten aho batez. 95.000 € inguru bideratuko ziren festen programara. Ia erdia (45.815 €) elkarteei, ekitaldiak antolatuzko.

Uztaileko protokolo gastua 154,35 € izan zen harpidetzak, bidalketa, diseinu eta inprenta lanetan.

2022/09/28. Gurasobakarreko familiek prezio bereziak izango dituzte kiroldetean eta udalekuetan.

2023ko udal zergen ordenantzari hasierako onarpena eman zitzaion EH Bilduren aldeko botoekin. Irizpide orokor gisa, %1,5 igoko dira Oiarzungo udal tasak eta zergak datorren urtean (salbuespenak ere izango dira). Era berean, gurasobakarreko eta familia ugariarentzat kiroldetean eta udalekuetan tarifa murriztuak sortzea adostu zuten.

Jon del Olmo Ogasun zinegotziak azaldu zuenez, "normalean KPIaren arabera igoera aplikatzen den arren, jakitun gara egoera ekonomikoa zaila dela, soldatek eta pentsioek ez dutela KPIak izan duen igoera eduki eta herritarrek eroste ahalmena galdu dutela. Horregatik, proposatzen dugu igoera orokorra %1,5ekoa bakarrik izatea, zerbitzu publiko duinak mantentzen jarraitzeko, era berean herritarren egoera ekonomikoa kontuan hartuta".

Gurasobakarreko familien kasurako lanketa egin dutela azaldu zuen, "beraien ezaugarri bereziak kontuan izateko". Lehen aldiz, prezio bereziak izango dituzte kiroldetean eta udalekuetan. Familia ugarietarako ere tarifa murriztuak izango dituzte.

EAJ abstenitu egin zen. Janire Mitxelena azaldu zuenez, "nahiz eta zerga igoera batzuekin ados egon, gauden egoera kontuan izanik zergak izoztea egokiagoa iruditzen zaigu, administrazioa herritarren ongizatea bermatzeko dagoelako".

Abuztuan ez zen protokolo eta dieta gasturik egon. Irailean 1.154,20 eurokoa izan zen, marka eta domeinuetan, lore eta eskeletan, orogarrietan eta garraioan.

2022/10/26. Lehen sektoreko proiektuak sustatzeko dirulaguntzen oinarriak onartu dituzte.

Lehen sektoreko proiektuak bultzatzeko dirulaguntza deialdia egitea adostu zuten: 58.000 euro, Oiarzunen garatzen diren sektore honetako ustiapenak eta proiektuak laguntzeko. Nekazaritza-ustiatzearen jarraipenari bultzada eman nahi dio Udalak horrela, landa-ingurunearen garapen ekonomikorako eta familia-nekazaritzatik ahalik eta jende gehien bizitzeko oinarriko bitarteko baitira.

Ustiatzearen hobekuntzak; nekazaritza makineria eta ekipoen erosketak; berrikuntza teknologikora bideratutako aholkularitza lanak; ekoizpen ekologikoa bultzatzeko egitasmoak; nekazaritza erabilerarako ur gastuak; abereen bazka eta pentsuen ordainketa... izan dira lagundu diren kontzeptuak.

Landetxeko eraikin berriko obren kontratuan aldaketak onartu zituzten: bukatzeko epea luzatzea eta hasieran onartutako prezioa 75.738,74 euro (BEZ gabe) handitzea, materialen prezio igoerei aurre egiteko.

Urriko protokolo gastua 605 € izan zen, jardunaldiaren.

2022/11/30. Inoiz izandako aurrekonturik handiena izango du Oiarzuneak.

2023ko aurrekontuari hasierako onarpena eman zitzaion, EH Bilduren aldeko bozkekin. 18.757.166 eurokoa izango da, 2022 urtean baino %1,8 gehiago.

Jon del Olmo ogasun zinegotziak lerro garrantzitsuenak aipatu zituen: energia trantsizioa, zainza eta administrazioaren digitalizazioa. Kulturak hartuko duen protagonismoarekin batera, "ongizatea, feminismoa eta euskara indartzen" jarraituko dutela gaineratu zuen. Aurrekontua egiteko jarraitu duten prozedura ere azaldu zuen. Irailean udal sailerako proposamenak jaso eta lehen zirraborroa ogasun batzordera eta auzo batzarretara eraman zutela adierazi zuen. "Auzoetan egindako bileretan 137 pertsonak hartu dute parte eta bertatik bildutako proposamenekin eta beste zenbait ekarpenekin aberastu dugu aurrekontua".

EAJ abstenitu egin zen. Janire Mitxelena bozeramaileak adierazi zuenez, "egitasmo batzuekin ados bagaude ere, beste zenbaitekin ez, tasa eta zergen igoerarekin adibidez". Hala ere, legegaldia ezezko batekin ez dutela amaitu nahi esan zuen, urte hauetan "adostasuna izan delako nagusi". Abenduaren 3an Euskararen Eguna izango da eta hori dela eta bi mozio izan zituzten hizketagai. EAJk aurkeztu zuen lehena. Duela 40 urte onartutako Euskararen Legea balioan jarri zuen.

EH Bildu abstenitu egin zen. Josu Delgado Hizkuntz normalizaziorako zinegotziak esan zuenez, euskararen normalizazioan urrats garrantzitsuak egin diren arren, erabilera datuen datuek adierazten dutenez, gaur egun egoera "zaila" du euskarak eta "ez dugu ezkortasunez jokatu behar, baina ezta autokonplazentziarekin ere".

UEMAren mozio bat aurkeztu zuen EH Bilduk. Testuak aipatzen zuenez, ezagutza sendotzen ari den arren, hizkuntzaren osasuna erabilerak erakusten du eta hor "erronka handiak" ditugu. Erakunde publiko "eredu izatea dagokigu" eta herritarrei euskaraz bizitzeko bideak eskaintzeko eta errazteko "erabaki ausartak" hartzea. Aho batez onartu zen testua.

Azaroko protokolo gastuak 1747,51 € izan ziren, web orri, inprenta eta diseinuetan eta bazkari eta luntzetan.



■ auzoak

Altzibar



Bukatu dituzte Altzibar biziberritzeko lanak. 2021eko irailean jarri zuen martxan proiektua Udalak, auzoko azpiegitura nagusiak berritu eta irisgarritasuna hobetzeko. Aparkaleku berri bat eta biribilgune bat egiteaz gain, auzoko erdiguneko hoditeria, argiteria, errepideak eta espaloiak berritu dituzte. 1.700.000 euroko inbertsioa egin du Udalak.

Arragua



Auzotarren eskaerari erantzunez, ariketa fisikoa egiteko makinak jarri ditu Udalak Lartzabal etxadiko haur parkearen ondoan (topoko zubiaren azpian) eta Parrezabaletako parkean. Bio-osasungarriko gailu hauek erabilera handia dute adineko pertsonen artean. Pertsona helduak ere aktibo eta osasuntsu mantentzen lagundu nahi da. 6 makina jarri ditu Udalak eta 7.100 euroko kostua izan du.

Elizalde



Beheko Plazako labaderoa berritzeko lanak egin dira. Paretak margotu eta sabaiko egurra lixatu eta bernizatu da. Udalak 6.534€ bideratu ditu lan hauetara. Auzoko bi aparkaleku estali ere berritu dira; Euskal Herria plazakoa eta Beheko plazakoa. Bertako paretak eta zutabeak pintatu dira eta lehenengoan sarrera berritu eta atea kendu da.

Ergoien



Hiru urteko etenaren ostean, Ergoien festa batzordearena izan da aurtengo auzoen arteko desafiya antolatzeko ardura. Giro aparta egon zen larunbatean Auzokalte inguruan. Txikorta, aulki jolasa, irrintzi lehiaketa... zazpi erronka ezberdin gainditu behar izan zituzten parte hartzaileek. Hala ere, sukaldeko lana izan zen erabakigarria. Iturrioztarrak izan ziren garaile.

■ auzoak



Gurutze



Gurutze eta Elizalde lotuko dituen bidegorria egiten ari da Udala. Datozen hilabeteetan bukatuko dira lanak. Bide berria Gurutzeko aparkalekutik abiatuko da, Malkorra hotelaren atzealdetik Fraileen Bideraino joango da eta hortik Legarre kalera. Bide guztia argizatuko da eta toki batzuetan egurrezko barandak ere jarriko dira. 635.000 €ko inbertsioa egingo da.



Iturriotz




Erregegi bidean hobekuntza lanak egin dira, autoak gurutzatzeko zabalgunerak berriak egiteko. 29.500 euroko aurrekontua izan dute obrek. Bestalde, Sarobe Erreka bide hasierako zatia ere konpondu eta uz zikinaren hoditeria luzatu da, inguruko etxe eta baserri batzuei zerbitzua emateko. 10.100 € bideratu ditu Udalak lan hauetara.



Karrika



Aurreko legealdian burutu zen Karrikako kale garrantzitsuenak berritzeko proiektua. Orain, urte hauetan hondatu eta zaharkitu diren espaloiak eta herri bideak aztertzen ari da Udala, 2023 urtean konpondu eta txukuntzeko.



Ugaldetxo



Ugaldetxoko auzo lokala zabaldu dute. Udalaren jabetzakoa den lokala auzotarrek erabiliko dute, Ugaldetxoko bizitza soziokulturala sustatu eta auzoko festak antolatzeko, besteak beste. 157 metro koadro ditu lokalak. 136.943,44 €ko inbertsioa egin du Udalak Ugaldetxoko auzotarrentzako azpiegitura hau prestatzen.

iruditan



Lartaun Abesbatzaren kontzertua



Bazterrak txukuntzen: Altzibar



Lore Moreren "Trapu Zikinak" antzezlan



Oiartzun, Euskal Herriko Herriarteko pilota txapelketan garaile



Iturriozko festak



Iturriozko festak



Iturriozko festak



Iturriozko festak



Oskarbi taldea eta Loinatz abesbatzaren kontzertua



Pasaka eskuz Oiartzungo XI. Txapelketa Herrikoia



Xanistebanetako kultur ekitaldia



Xanistebanetako kultur ekitaldia



Xanistebanetako kultur ekitaldia



Xanisteban



Xanisteban



iruditan



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak

iruditan



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak




Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Xanistebanak



Arditurriko tren berdea



Karrikako festak



Karrikako festak



Karrikako festak



Karrikako festak



Hiru Binaka



Poesia eguna



iruditan



Sortzaileen azoka



ERRE bertso ikuskizuna



Euskararen kale erabileraren emaitzen aurkezpena



Gurutzeko festak



Gurutzeko festak



Gurutzeko festak



Gurutzeko festak



Bazterrak txukuntzen: Iturriotz



Ugaldetxoko festak



Ugaldetxoko festak



Ugaldetxoko festak



Ugaldetxoko festak



HemenGuk udazkeneko azoka



Kuadrillategi: ikasturte hasierako festa



Auzo batzarrak: Altzibar



iruditan



Auzo batzarrak: Arragua



Auzo batzarrak: Karrika



Auzo batzarrak: Ergoien



Auzo batzarrak: Ugaldetxo



Auzo batzarrak: Gurutze



Auzo batzarrak: Iturriotz



Auzo batzarrak: Elizalde



L-UR emanaldia



Garagardo azoka



Garagardo azoka



Kategoriko VII. bertso bazkaria



Batzerrak txukuntzen: Ugaldetxo



Alternatiben Oihartzuna



Kirol Astea



Kirol Astea



iruditan



Kirol Astea



Kirol Astea



'Emakumeen iraultza Iranen' hitzaldia



Abesbatzen kontzertua



Gau beltza



Gau beltza



Gau beltza



Gau beltza



36ko gerrako biktimei lore-eskaintza



Hitzen Lihoa



Hitzen Lihoa



Hitzen Lihoa



'Izengoitiak ezkututzen duena. Oartzungo idazle emakumeak 36ko Gerra aurrean' Goiatz Labandibarren hitzaldia



Auzoen arteko desafiyya



Auzoen arteko desafiyya



iruditan



Auzoen arteko desafiya



Auzoen arteko desafiya



IX. Jose Manuel Azkue Memoriala



Ondare jardunaldiak



Ondare jardunaldiak



Euskaraldia



Euskaraldia



Euskaraldia



Bazterrek txukuntzen: Arragua



Kuadrillategi: Odei Barrosoekin solasaldian



Girizia mendi irteera: Alkiza-Ernio



Muxikoak



Zai, zoi, ele! Apoaren itzala



HemenGuk neguko azoka



HemenGuk neguko azoka




iruditan



Oiartzungo hizkera erabiltzeko gidaren aurkezpena



Euskararen Eguna



Euskararen Eguna



Euskararen Eguna



Kantagiltza: Mikel Urdangarin



San Nikolas Ttikia



San Nikolas Ttikia



Mattin Etxebeste Euskal Herriko IV. Aurreku Txapelketan nagusi



Lartaun Abesbatzaren Gabonetako kontzertua



'Ikusezinak. Erbesteratuen haurrak' liburuaren aurkezpena



Txerri Eguna eta ganadu azoka



Txerri Eguna eta ganadu azoka



Txerri Eguna eta ganadu azoka



Txerri Eguna eta ganadu azoka



Alaia Martin Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean (argazkia: Foku)



DATA	ORDUA	EKINTZA	LEKUA	ANTOLATZAILEA
01	08:30 09:00	Aiako Harrira irteera	08:30 Plazan 09:00 Elurretzen	Girizia Mendi Taldea
02-12	16:00-18:00	Ikastaroa: 'Kudeatu zaitetz Google aplikazioekin' (gaztelera)	KZgunean	KZgunea
02	16:30	Zirkuitu jolasak	Abaraxka Udal Ludotekan	Abaraxka Udal Ludoteka
203	10:30	Gurutzeko bidegorria ezagutzen	Abaraxka Udal Ludotekan	Abaraxka Udal Ludoteka
04	16:30	Brailiera ikasten	Abaraxka Udal Ludotekan	Abaraxka Udal Ludoteka
08	17:00	Elkartasun bertso Saioa	Elorso kiroldegian	Etixerat
13-25	16:00-18:00	Ikastaroa: 'Google aplikazioak zure Smartphonean' (gaztelera)	KZgunean	KZgunea
14	16:30	Argazki bidezko pista jolasa	Abaraxka Udal Ludotekan	Abaraxka Udal Ludoteka
15	10:30 (haurrak) 11:00 (helduak)	Lasterketa herrikoa	Doneztebe plazatik	Sare
15	12:00	HM Eskolaren kalebuelta	Elizalden	Soinuenea
20	17:30	Lur Kortaren ipuin kontaketa 2-3 urteko haurrentzat	Manuel Lekuona bibliotekan	Udala
21	16:30	Eskulanak	Abaraxka Udal Ludotekan	Abaraxka Udal Ludoteka
22	19:00	'Ogiak hizketan baleki' antzezlan (Mamiak kolektiboa)	Udaletxeko areto nagusian	Oiartzungo Antzerkizale Elkartea
24	20:00	Irakurketa taldea: 'Lazunak azakalean' (Oihana Arana)	Manuel Lekuona bibliotekan	Udala
26	19:00	'A ascendencia oiartzuarra de Manuel Murgía, esposo de Rosalía de Castro' hitzaldia	Udaletxeko areto nagusian	Fato Cultural Daniel Castelao eta Udala
26-27	16:00-18:00	Ikastaroa: 'WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure Smartphonean' (gaztelera)	KZgunean	KZgunea
27	19:00	Poesia errezitaldi musikatu galiziar-euskalduna	Udaletxeko areto nagusian	Fato Cultural Daniel Castelao eta Udala
28	11:30 eta 12:00	Pikondoaren landaketa eta Kontxa Murgiarri omenaldia	Zimitioan eta Maneul Lekuona Bibliotekan	Fato Cultural Daniel Castelao eta Udala
28	12:30	Albokariaren batzarra. Kalebuelta.	Elizalden	Soinuenea
28	16:30	Pelikula	Abaraxka Udal Ludotekan	Abaraxka Udal Ludoteka
29	-	Ereñozu - Lastola (sagardotegia) egun-pasa	-	Girizia Mendi Taldea
29	17:00	Pirritx, Porrotx eta Marimotots: "Urteak beti, abenturak bizi"	Elorso kiroldegian	Ugaldetxo Kultur Taldea
30	16:00-18:00	Ikastaroa: 'Egon zaitetz aktibo Google Fit eta Wikilocekin' (gaztelera)	KZgunean	KZgunea
31	16:00-18:00	Ikastaroa: 'Musika aplikazioak zure Smartphonean' (gaztelera)	KZgunean	KZgunea